

Basogintza politika Udaletan

Basogintzak ingurugoiari eta gizarteari dakarzkion onurak aitortu eta baloratzea eskatzen die GEBEk erakundeei eta eztabaida antzuak alde batera uztea

Gipuzkoako Baso Elkartek (GEBE) azkenaldian sumatu duenez, basogintzari eta basojabeei oztopo nagusienak gertueneko erakundeek jartzen dizkiete askota; Udalek, alegia. Landa ingurunea gehiegi arautu nahian, askotan, neurri murriztaileak ezartzen zaizkio basojabe eta baserritarrei eta horiek bere jarduna oztopatu egiten dute eta bideragarriezin bihurtu ere, bereziki basojabe txikiak.

Zenbait herrietan ere, batipat Gipuzkoan, eztabaida antzuak eragiten ari dira azkenaldian hainbat udal taldeetatik. Talde kontserbazionistak bultzatuta, geroz eta sarriago erasotzen zaio basojabearen autonomiari, berorren lana mugatu nahian eta zalantzan jartzen. Eta horrek, era berean, ez du laguntzen basogintzak gizarteari, zein ingurugoiari dakarzkion onurak baloratzen.

Zentzu horretan, **EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos** taldeek Udaletxe batzuetan baso politikari buruzko mozioak aurkezten ari dira. Udal desberdinetan dokumentu berbera aurkezten ari dira eta egindako eskaera batzuk ondorengoak dira, bazkideok ideia orokor bat izan dezagun:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea edozein motatako eukalipto landatzeko baimenik inorri ez ematea, hau da, eskaeren tramitazioa atzeratzea.
- Eskatzen dute ere Espezie Exotiko Inbaditzaileen katalogoa zabaltzea, eta bertan eukalipto mota guztiak sartzea.
- Foru Aldundiari deia egiten dio eukalipto gehiago inon landa ez dadin.

Aipatutako mozio horren aurrean mozio alternatibo bat prestatu du **EAJ**-k, tokian tokiko Udalbatzetan, aurrekoari aurre egiteko. Lau puntu ditu:

1. Basogintzak eta baso kudeaketak ekonomian, enpleguan, bioaniztasun sortzaile gisa, ingurugiro zainketan eta zerbitzu ekosistemiko sortzaile gisa jokatu duen eta jokatzen ari den papera aitortu eta publiko egin dezala Udalak.
2. Onura guzti hauek baso kudeatu batek eskaintzen dituela aitorturik, gizartearentzako egungo arazo nagusienetariko bat baso kudeaketaren abandonua dela aitortu eta berau ekiditeko erakunde desberdinen artean (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udala) eta baso sektorearekin elkarlanean, baso kudeaketa sustatzeko politikan parte hartu bezala beti ere bere eskumenen baitan.

3. Baso kudeaketa ez izanik arazo nagusiena, baso kudeaketa sustatzerakoan, ez dadila espezieen neurri gabeko borroka antzuetan erori, espezi bate do beste arriskutsu edo kaltegarri landatzen den kopuruaren arabera bihur baitaiteke, ez espeziearen izaera kaltegarria delako

2. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarrita daukan baso politikarekin bat eginez, eukaliptoia ez den beste landaketa batzuk lehenetsi ditzala. Espezie desberdinak lehenesteko garaian udalak ez ditzala bide debekatzaille eta arautzaileak erabili, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostutako bide pizgarri eta sustatzaileak baizik, baso jabe pribatuei beraien ekimenetan lagunduz.